

Hiru mendi martxa hamabostaldi honetan

Zeanuriko XXXVI. Ermiten Mendi Martxea, hilaren 6an izango da; Dimako ermiten ibilbidea, 13an, eta Ubideko Bira hurrengo egunean, hilak 14. Zeanurin hiru ibilbide dagoz aukeran: 35 kilometrokoa, 23 km-koa eta 13 km-koa. Diman, ohiko ibilbidearen erdia egingo da aurten, beste erdia 2026 urterako itxiz, beraz 12-15 km inguru. Ubideko Biran ibilbide bi dagoz aukeran: bata 20 kilometro ingurukoa eta bestea 12 kilometrokoa. **10. orrialdea**



Arteako jaiak hilaren 4tik 8ra izango dira

Zeinke, Kokein eta TOC taldeek animauko dabez gauak eta Zazpizar eta Zirkinik bez erromeria taldeek be joko dabe.

Etxera bueltetako autobusa barikuan egongo da, hilak 5, Zeinke, Kokein eta Zazpizar erromeria taldeek jotzen dabena gauean, hain zuzen be. Baina Kontzertu eta erromeriez gainera, herri afaria egongo da jaietako lehenengo egunean; Tortilla Txapelketea, herri bazkaria eta mozzorro desfilea zapatuan; Frontenis Txapelketako finala eta Txintxeta, Klipa eta Txorroskiloa pailazoak, domekan, eta Onintza Enbeita eta Aitor Etxebarriazarraga bertsolariek saioa eskainiko dabe jaietako atzen egunean, jenteak ondo pasetako beste ekintzen artean.

Lau egunetako egitaraua osoa izan arren, Arteako jaiak bigarren parte bat izaten dabe, hamabost egun beranduago egiten dan MerkArte azokako egunean. Aurten, urri lehenengoaren 20an izango da eta orduan be ez dira faltauko musikea eta jana, jaiak jarraitu dagian.

5. orrialdea



AREATZA

Gorbeiaiko Altxorak, turismoa eta gastronomia Areatzan

Urri lehenengoaren 13an, besteak beste, mendi ibilbidea, Areatza uribilduan bisita gidatua eta Gorbeia inguruko produktuak gozatzeko aukerea egongo da Areatzan, egun osoko jaietan. Arrastian, Korrontzi taldeak *Izan bagara* ikuskizuna eskainiko dau plazan. **7. orrialdea**

IGORRE

Arratiako Motor Taldeak XXV. motorzale topaketea egingo dau

Urri lehenengoaren 5 eta 6an izango da. Arratiatik ibilbidea egingo dabe bertaratutakoek zapatu goizean eta arrastian Narcis Rocaren motor akrobaziak ikusteko aukerea izango dabe. Gainera, txosnea, elektrotxarangea eta jana ez dira faltauko. **6. orrialdea**

IGORRE

Autopista elektrikoaren sai zuriarenganako eragina ikertzeko agindua emon dau Fiskaltzak

Igorretik pasatukeran, Gueñes-Itxaso autopista elektriko lineak sai zuriarengan izan ahal daben eragina ikertzeko agindu dau Fiskaltzak. Izan be, adituen txostenek ondorioztatu dabe Gueñes-Itxaso 400 kv-ko aireko linea elektrikoaren trazadurako T-40tik T-44rako euskarriak eregitzea eta instalatzea mehatxu esanguratsua eta larria dala sai zuriarentzat Bizkaian, Igorreko habitataren kalidadea murrizten dualako. **7. orrialdea**



Literatura txokoa

JARDINOSOFIA. UNA HISTORIA FILOSÓFICA DE LOS JARDINES

Liburu honen egilea dan Santiago Beruete (Iruñea 1961) antropologo eta filosofoa da eta Filosofiako Doktoradutza jardinen inguruan egin eban. Liburuaren sarreran aurkezten deusku bere tesia: lorategia, sinbologia konplejudun artelan bizia dan neurrian, kultur-adierazpen eta sorkuntza intelektual sofistikaua da. Artelan guztiek legez jardinekin garai baten esentzia erakusten dabe.

Lorategien sorkuntzak historia luze eta oparoa dauka, estetika hutsa edo artea eta naturearen arteko harremanaz harago. Holan ba, saiakera honetan lorategien historia eta garai baktxean daukiezan ezaugarriak azaltzen jakuz, eta zelan ezaugarri horreek lotuta dagozan garai horretako gizartearen

pentsamentuagaz; jardinen dimensino sinboliko, etiko eta baita politikoa be aztertuz, zelan diran garai horretako gizartearen espilu adierazoten deusku.

Lorategietan deskansetan dauala dino Beruete; gure Edenaren nostalgiak, bertako edertasun, serenidade eta bizitza onaren nostalgiak. Edenaren bila ei goaz jardinak sortzean.

Jardinetara sensibilidade nahikoagaz hurreratzen danak ulertuko dau ze puntutaraino diran gure naturagazko harremanaren metaforea. Harreman horreetan miresmena eta dependentzia dago baina baita menperatzeko eta nagusitasunerako grina be, ingurunearen etxekotzea gizakiaren funtsezko ezaugarria balitz lez.

Hori guztiori ulertzeko kakoak emoten deuskuz Santiago Beruete lan miresgarri honetan, modu adimentsu, delikadu eta oso atseginean; bitxikeriez eta aitamenez josirik baina zehaztasun zientifikoa eta arintasuna galdu barik.

Ikuspegi era berean kronologiko zein gaikakoagaz lau zatitan eta 24 ataletan banatzen dau jardinen atmosferak daukazan ondorio filosofikoen ibilbidea, baztertu barik geometriaren moduko diziplinak.

Ibilbide hori garatuz lortzean dau esatea jardinen konzeptinoa geure identidadearen metafora perfektua dala eta bere Historia zorionaren bilaketaren Historia eta istorioa.

Zoriona, bizitza ona (zentzu

filosofikoan), denpora eta espazioaren erabilerearen ibilbidea; azken baten plazerrarena. Bai, ze azken baten batez be jardinekin emoten deuskuen plazeraz dihardu liburu honek.

Lorategiez gehiago gozatzeko begiak zabalduko deusuz liburuak eta, hortaz, Edenera hurrertzeko bidezidorrean jarri.



Santiago Beruete

Jardinosofía. Una historia filosófica de los jardines

Turner Ediciones, 2016

536 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Urri lehenengoaren 1etik 7ra
Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara
Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano. (30-5)

Urri lehenengoaren 8tik 14ra
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara
Melero. Amorebieta-Etxano. (6-12)

Urri lehenengoaren 15etik 21era
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara
Sarasketa. Amorebieta-Etxano. (13-19)
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Cometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak
Arantzazu: 94 600 74 63
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13
Dima: 94 680 19 74
Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 45 03 61
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea
94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79
IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa
688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola
94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunean orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.
Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik 21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era orduro.
Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.
Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.
* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.
Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. *Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20. *Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunean: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunean: Ubidekoak 06:45ean eta 08:45ean urteten dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau.
Jaiegunean: Ubidekoak 10:30ean urteten dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo
Lanegunean: Ubidekoak 15:15ean eta 16:15ean urteten dau eta Otxandiokoak 10:30ean.
Zapatuetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau eta Otxandiokoak 10:30ean.
Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketee:** Garbikuzi enpresea (Dima), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus, **Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuz.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Ekin eta bultza askatasunera!

50 urte bete dira aurten Angel Otaegi eta Juan Paredes "Txiki" fusilau ebenetik. Herri honen askatasunagaitik konprometidu ziran gazte bi. Hau da, gazte bi independentista izateagaitik fusilau ebezan oin dala 50 urte Txiki eta Otaegi.

Momentu horretan hasitako transizinoak, Euskal Herria kateatu eban, nazino aitortza eta erabagiteko eskubidea ukatuz. Gaur egun, 50 urte beranduago be, bizi dogun testuingurua elementu horreek zeharkatuten dabe.

Hau holan baina Euskal Herri aske baten aldeko taupadea ez da inoz gelditu. Gure belaunaldikoek ondo dakigu guri jagokula Euskal Herrian askatasunerako burrukeagaz segidu eta herri hau ezkereskoi astindutea. Horregaitik, atzera begiratzuz aurrerapausuak emoten segiduko dogu. Azken urte guztietan egindako burruka guztia erdigunean ipini eta gaur egun daukaguzan erronkei erantzuteko momentua da.

Momentu gaxak bizi doguz

gaur egun eta gero eta hankaz gorago dago mundua. Gainera, Euskal Herriaren etorkizuna eta herri honen biziraupena ez dagoz bermatuta. Horregaitik guk argi daukagu: herri honen askatasunaren alde kaleak hartuko doguz! Ezelango zapalkuntzarik bako etorkizun bategaz amestuten dogu eta hau posible egiteko, indarrak batuz, ekin eta bultza segiduko dogu askatasunera. Argi daukagu amestuten dogun etorkizun honetako giltza independentzia dala eta ahalik eta gazte gehien batuko doguz burruka honetara, holan olatu independentista bat sortuz.

Honetara bidean, aurrerapausu bat gehiago emoteko momentua izango da urri lehenengoaren 14a. Bulebarretik hasita, Arratiako gazte independentistok be Donostiako kaleak beteko doguz. Horretarako autobusetan apuntetako aukerea dago Igorreko Axular Herriko Tabernan.

Askatasunaren taupadea indarragaz dagoala erakutsi eta etorkizuna irabaztera goazela argi itxiko dogu.

Ekin eta bultza askatasunera!

ARRATIAKO ERNAI

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Komunidadea egiteko espazioa

2021eko urri lehenengotik 2025eko abuztura arte, Joseba Sanchezek eta Karlos Aretxabaletak elikatu dabe espazio hau Zirhika sailagaz, ahozko euskeran hitanoa bultzatu guran. Eskerrik asko Joseba eta Karlos egindako lanagaitik.

Oin, espazio honeri beste erabilera bat emoteko momentua heldu da, bide barri bateri ekitekoa. BEGITU gura geunke, espazio hau irakurleen zerbitzura egotea, euren preminak beteteko. Esate baterako, planak konpartiduteko, hau da, plan bat egiteko jentea bilatzeko; denpora banku bat, hau da, norbere denporea unidate moduan erabilten dauan zerbitzuak trukatzeko sistema; edo komunidadea egiteko balio dauan edozertarako komunikazino espazioa eskaintzea.

Espazio hau erabilteko idearik izan ezker, bialdu zuen iradokizunak begitu@begitu.eus helbidera, eta jasotakoen artean egokiena ipiniko da martxan.

Zeuenta da espazioa eta zeuenta da aukerea.

ERETXIA

11 eguneko zaldikoa, 365 eguneko inurria

Euskerearen aldeko lana, sarri, inurrien jardun etenbakoagaz parekatu izan da: isila, nekaezina, kolektiboa. Egunero-egunero, milaka personek eusten deutsie euskereari herrigintzan, ikasgelan, kulturgintzan, lan munduan, komunikabideetan edota kalean. Ahalduntzea eta aurrera bideak landuten ditue pausuz pausu, komunidadearen taupadaz elikatu-ta. Ez da lan ikusgarria beti, baina bai ezinbestekoa.

Baina badira une batzuk inurribide hori astindu eta saltu bat egiteko beharra sentiduten dogunak. Eta une horreetan agiri da zaldikoa: ez zaldia bakarrik, mobimentua baino, abiada eta kolore bizia dakarren izakia, jarke-ra zaharrak astintzera datorrena. Euskaraldia da horreetako bat: 11 egunez, inertziei kolpe txiki bat emoteko konbitea, euskerea erabilteko ohiturak birpentsetako eta alkarregaz saltu egiteko ariketa soziala.

Ez litzateke zaldikorik izango inurri barik. Ez leukie inurriek eutsiko ezer zaldikoaren astindu inspiratzaile barik. Euskerearen bizibarritzeak biak behar ditu: eguneroko lan jarraitua eta une jakinetan biztutako bulkada kolektiboa. Inurrien bidea eta zaldikoaren saltua alkarregaz doaz.

Taupa euskaltzaleen mobimentuaren iparretako bat da 365 egunez euskeraz biziteko baldintzak sortzea eta aldarrikatzea. Hori lortzeako hamaika proposamen luzatzen doguz egunerokotasunean euskaltzaleak saretzeko eta erabilera espazioak irabazteko. Euskerearen aldeko neurriak, babesak eta hizkuntza politika eraginkorrak garatu daitezkan be lan egiten dogu, euskalgintzako beste eragileakaz batera. Hamarkadak daroaguz egunerokotasunean euskerearen erabilerea erdian ipinteko eta euskaltzaletasuna



JASONE MENDIZABAL
ETA OSKAR ZAPATA
Taupakideak

sustatzeko konzieniazinoa landuten eta proposamenak luzatzen, adorez eta atseginez.

Eguneroko lanagaz eta ekimenakaz batera, egoerearen gainean konzienzia astintzeko eta ikusgarritasuna emoteko ekimen erraldioak be behar doguz: Korrika, manifestazinoak, festak... eta Euskaraldia. Horreen bitartez ailegetan da euskerearen gaia jente-artera orokorrean. Horreek barik gure eskola apurtu eta hortik ateratea gaxagoa dogu.

Urteren baten aterako dira hobetoxuago edo eskasago baina horreek danak eta antzeko ekimen barri gehiago behar dogula ikusten dogu, oindino Siadokok euskerearen etorkizuneko egoeraz landutako proiektzinoaren azken txostena irakurrita.

Astinaldi bakotxak badauka bere jomugea eta horretan ordezkaezinak dira gaur. Euskaraldiaren jomuga argia da, hizkuntza ohiturak eta euskerearen erabilerea. Hilebeteak pasau dira Euskaraldia amaitu zanetik, han hemen balorazino bilerak egin dira, ikerketeak udagoienean ekarriko dituan azken irakurketearen zain, apunte batzuk ekarri gura doguz idatzi honetara:

Euskaraldiak deserosotasuna sortzean dau jente-artean oro har, balizko partaideengan, entidabideetan, erakundeetan eta euskal-

gintzan be bai: inertziak astindu, betiko lekutik mobidu, ez-ohiko alkarlanei bide emon, norberaren mugak aitortu eta erantzukizunak hartu. Deserosotasunak konzienzia eragiten dau.

Aurtengoan Euskaraldiak ikusgarritasun handia lortu dau barriro, gura barik be, herritar guztiek jaso dabe horren barri. Komunikazino kanal ugariak erabili dira eta aldeko eta kontrako jarkerak eragin ditu. Ha-ta guzti be, erabile-rearen garrantziaz ohartarazotean horren inguruko gogoeta erdigunera ekartea lortu da.

Mobimentua eragin dau, 450 herri baino gehiagok emon dabe izena, inoz baino herri gehiagotan sortu dira Euskaraldia batzordeak, jente barria batu da, ilusino eta umore handiz egin dabe lana eta euskaltzale egiturak ez dagozan herri eta eskualdeetan herritarrak saretzeko aukera barriak sortu dira. Egiturak dagozan herrietan barriz, gogoetak eragin ditu. Euskaraldia batzordeetan euskerea izan da hartu-emonetako hizkuntzea, Tolosan eta Lodosan, eta hori garrantzitsua da. Erabileran eragiten dira-ta antolaketa prozesu eta eragile guztiengana.

Zenbakien gaia ez dogu saihestu gura. Askok begiratzan jakie, eta inportantzia dauka, jakina, parte hartu dabenen erdiagaz be pozik egon geintekoz. Izan be, Euskal Herrian historikotzat jotzen diran edozein mobilizazino masiboaren parametrotik goitik ibili baita aurtengoaren parte hartzea barriro.

Euskaraldiak zer hobetuak baditu, jakina: izen-emote prozesua ez ei da erraza, txapen erabilerea gorabeheratsua izan ei da, txapa gehiago eskura jartzeko eskatu jaku, udabarrira ekartea ona izan da, baina oporraldiko etenak kalte egin deusku, Belarripest gehiago behar dira eta ez doguz lortu... Horreen guztien inguruko gogoe-tak jasoten gabiz eta ebaluaketa zorrotza egingo dogu.

Horregaz guztiagaz ikasi eta edizino barri indartsuago baten irudikapenari ekingo deusagu udagoienean. Zaldikoaren galapa barria heldu bitartean, inurri lana jagoku oin.



LUMATUTEN



AMAIA ESPINOSA

Sua

Bero ei dago mundua, be-roak eta beroaldiez beteta daukaguz egunkariak, barri emoileak eta komunikabide guztiak. Zerrenda zoroa eguneroko gertaerakaz egin daikeguna, guztiak ia maila berean eta irakurri ahala ia ahaztu egiten jakuzanak. Danak, ostera, ez dira maila berekoak, danek ez daukie konponketa bardina, konponketarik badaukie be, ezta ondorio eta eragin bardinik be. Nahiz eta danek sua edo garrak izan.

Guregandik ez hain hur, munduko hainbat herrialdetan bonbek eta gudek sortutako suak eta garrak. Gatazka zaharrak eta barriak, agintearen komentzien arabera erakutsi edo ostendu egiten deuskuezanak. Eta zoritxarrez, gertutasuna dalata, modu gordinean helarazoten deuskuez zuzeneko sarraski eta ezbeharrak etxeko salan. Eta gizakiok, bien bitartean, tresna zaharkituakaz egiten dogun moduan, begi eta belarrietatik etenbarik ikusi eta entzuten do-

guzan tragediak eta deskalabruak errutina bihurtzen ikasi dogu. Tristeena da, munduko aldarrikapen eta garrasien gainetik, goi mailako indar politikoen isiltasun eta totelkeria lotsagarriagaz eta podere eta poderetsu batzuen bultzakada koldarrari esker, sua eta garraren erantzuleek gura dabena egiten jarraitzen dabela. Bizitza eta heriotzeari barre eginaz.

Eta beste erabateko su eta garrak guregandik hur. Ingurumena hausterre bihurtuta. Bizkaia eta Arabaren lurraldeak beste eremu erre ei da azken egunotan. Eremu, etxe, animalia eta gizakiak. Beroa errudun? Lagundu egiten dau, hori seguru, baina estadistikei kasu egiten badeutsegu, erreketak, ez bakarrik estaduan, Europa osoan baino, % 3a kenduta, gizonen eskuak erangindakoak dira. Hau da, ia ehuneko ehuna. Zergaitia jakitea gatxa da, baina beste su eta garren moduan, egingo neuke barruan daukagun norberaren buruari kaltea egitearenak badaukala zerikusirik. Eta egoera honetan be, gauzei arpegia emon beharrean, arduradunek, erantzuleek edo dana dalakoek, alkarrerri errua bota eta zein dan tontoena eztabaidatzen emoten dabe denporea.

Hemen aldiz, udako azken txanpari begira gagoz. Eta aspaldi beroa eta sargoria nagusi badira be, bizitzak aurretik aitaturako su eta gar barik egiten dau aurrera. Gurean, oingoz eta zorionez, jaiek mila koloreetan margoztuten deuskuen su eta txinpartak baino ez doguz zero goienetan.

ZERTZEAN



ENARA GALLASTEGI
BARRENETXEA

- 1

Kaleak daude uda partean atzerritarrez beteta askok kamera eskutan eta eraikinetan arreta batzuk motxila dute lepoan besteak eskuan maleta bidaiatzeaz ta turismoaz hitz egiten da tarteka baina nola egin turista eta bidaiariaren banaketa.
- 2

Sarri entzuten denez turismoak diru asko dakarrela turistentzako dendan, tabernan erderaz dago kartela ta beraientzat dena zabalik pintxo eskaintza itzela kanpokoei begira jarritz herri guztia horrela gure herrian sentitzeraino kanpokoak gu garela.
- 3

Hegazkina hartu ta iristen dira hotela duten hirira edo kotxean bidaia egin landetxeko atarira planifikatu bidaia osoa interneten jira bira bost izarreko hotelak eta hainbeste turismo gida lekuak ondo ezagutzeko beharrezkoak al dira?
- 4

Turismoa da publizitate eta modaren menpeko toki pila bat huts-hutsik eta beste batzuk jendez lepo mila iritzi daude hala ere kontrako eta aldeko nire ustetan egin behar da kudeaketa hobeto jada aberats diren horiek soilik ez aberasteko.

- 5

Turismoaren ondorio bat gentrifikazioa da ta elikatu ohi dute elkar elkarri emanez bultzada hortaz gero ta etxe gehiago hutsik geratu da jada gero horrek dakar alokairuan prezioen gorakada ordaindu ezin bizilagunen artean dago ikara.
- 6

Bidaiatzean beti ezagutu historia eta kultura sakontasunez ikusi dena ta ez bakarrik itxura ohitura eta jende berria denontzako da onura beti ere zainduz ingurumena paisaia eta natura modu onean bidaiatzeko denona baita ardura.

ago

BEGI TXINDORRA

Udak be bere kolore sinfonia dauka, itsaso inguruak, beste kolore paleta bat, eta holantxiak erakusten deusku Unax Irazabalek bialdutako argazki honek. Koloreek, begiratzeko eta sendituteko moduan eragina daukie eta ez da sinestesia beharrik paisaje hau entzun, usaindu edo bere epeltasuna azalean sentiduteko. Argazkia Lo Bocau Vielh, bokale zaharrean (Vieux-Boucau, frantsesez) aterata dago, Landetan.

Gogoratu, BEGITUREN Udako Argazki Lehiaketan parte hartzeak, saria euki leikela: irabazlearentzat, landetxe baten astegoien bat, hain zuzen be. Parte hartzeako, urri lehenengoaren 25a baino lehen bialdu behar dira argazkiak begitu@begitu.eus helbidera; hiru gehienez. Egilearen datuez gainera, argazkia, non eta noz atera dan adierazo behar da.





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozueta poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com





Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1. behe
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

ARTEA

Zeinke, Kokein eta TOC taldeek animauko dabez Arteako jaietako gauak

Zazpizar eta Zirkinik bez erromeria taldeek be joko dabe bariku eta zapatuko gauetan, hurrengo hurrengo.



Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 4an, 18:00etan txupina bota eta leher-tuko da jaia herri jantza eta buru-handiakaz. Ostein, 5 eguneko egitaraua. Kontzertu eta erromeriez gainera, pailazoak, bertsolariak, herri afari eta bazkaria, taloak, mo-zorroak... eta beste ekintza ugari egongo dira, ume, gazte, heldu eta zaharren gozamenerako.

Bariku gauean, 02:30ean eta 05:00etan, egongo da Arratiako herrietara eta Zornotza, Usansolo

eta Galdakaora joateko autobusa.

Urri lehenengoak 4, eguena
18:00etan, txupinazoa, herri jan-tzea eta buruhandiak.
18:30ean, Argi eta Koldo.
21:30ean, herri afaria eta bingo musikatua.

Urri lehenengoak 5, barikua
18:00etan, Hamarru elektrotxa-rangea.
20:00etan, taloak.
21:30ean, kontzertua: Zeinke.
23:00etan, kontzertua: Kokein.

00:30ean, Zapizar erromeria taldea.

Urri lehenengoak 6, zapatua
11:00etan, umeentzako jolasak.
13:30etik 14:00etara, Tortilla Txapelketea.
14:00etan, herri bazkaria.
20:00etan, Mozorro Desfile Txapelketea, udaletxetik plazara eta nagusi eta Umeen Playback Txapelketea.
23:00etan, TOC taldearen kontzertua.
00:30ean, Zirkinik bez taldeagaz erromeria.
03:00etan, DJ Kuku eta Kene. Mo-zorro gaua: denporearen makinea.

Urri lehenengoak 7, domekea
12:30ean, Arbasoak taldearen kontzertua: *Bi itsasbaster*.
17:30ean, I. Andrazkoen Frontenis Txapelketearen finala.
18:30ean, Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo pailazoak.

Urri lehenengoak 8, astelehena
12:00etan, mezea.
13:00etan, bertsolariak: Onintza Enbeita eta Aitor Etxebarriazarraga.
18:00etan, Patxi eta konpainia taldeagaz erromeria.
20:00etan, txokolatea.

LEMOA

San Antolin eta Andra Mari jaiak ospatuko dira Lemoan hile hasikeran

Erredakzinoa

Lemoatx azpian dagoan San Antolin ermiteak eta Andra Mari elei-zeak euren izenen jaiak ospatuko ditue urri lehenengoaren 2an eta 8an hurrengo hurrengo.

Urtero lez, autobusak egongo dira San Antolin egunean Lemoatxara igoteko 10:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Eguerdian, kuadrillak giro ederrean, baba-jana egingo dabe eta erromeria egongo da bazkalostean.

Elizondon barriz, Andra Mari jaiak ospatuko ditue eta horretarako egun biko jai egitaraua prestatu dabe: za-patuan, hilak 6, eta astelehenean, Andra Mari egunean, izango dira ospakizunak. Zapatuan bertso bazkaria egongo da Onintza Enbeita eta Aner Euzkitze bertsolariakaz eta astelehenean, Durundi Barri jantza taldeak emonaldia eskainiko dau, beste gauza batzuen artean.

San Antolin
Urri lehenengoak 2, martitzena
12:00etan, mezea San Antolinen; ostein, barauskarria.
13:00etan, azkolarien erakustaldia Mendieta Herri Kirol taldearen eskutik.
14:00etan, Baba Lehiaketako la-pikoen aurkezpena.
16:30ean, erromeria Joxe Mendi-zabalegaz.



Andra Mari jaiak
Urri lehenengoak 6, zapatua
13:00etan, poteo musikatua Arratiako Musika Eskolako trikitilariakaz Batzokitik.
15:00etan, bertso-bazkaria Kultur-guneko plazan (euria bada, eskolako aterpean). Bertsolariak: Onintza Enbeita eta Aner Euzkitze.
17:30ean, Andra Mari Futbol Txapelketea Arlonagusian Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatuta.
19:30ean, poteo musikatua Txerokiak taldeagaz Arlonagusia futbol zelaitik.

Urri lehenengoak 8, astelehena
12:00etan, meza nagusia Andra Mari eleizan. Meza ostein, Durundi Barri jantza taldearen emonaldia.
13:30ean, Triki-Piu-Pand trikitilariak herritik.
19:00etan, Barsanti konpainiaren *LJ75* antzezlanak Kultur-guneko plazan.

DIMA

Dimako Udalak eta alkarteek 2024an antolatutako kultur jarduera guztiak euskeraz izan ziran

EITB eta Tokikom-ek alkarlanean garatutako Saretzen proiektuko atzen gaia, kultura izan zan. EAEn kultur egoerea aztertzeke Saretzenek Kulturklik-en datu basea erabili eban, kultura jardueri jagokienean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako datu baserik handiena dalako. Eta Kulturklik-ek Arratia, Ubide eta Zeberioko kultur jarduera gehienak jaso ez arren, jardueren ezaugarriak eta joerak adierazoteko eta beste eskualdeakaz alderatzeko moduko lagina da.

Erredakzinoa

Horregaitik, hortik jasotako datuak eta horreen lanketea emon eban argitara BEGITUk.

Baina EAEko kultur jardueren panorameari begiratzeko balio-garria izan badaiteke be, ez da hainbeste gure eremuko herriei jagokienean. Batzuetan, lagin horretako porzentajeak eta errealidade osoarenak urrun dagozalako, eta beste batzuetan datuak oker egon daitekezalako.

Dimako Udalak, 2024ko ekitaldien hizkuntzen gaineko datua jakitera emon deutso BEGITURI: Diman antolatu ziran kultur arloko ekitaldien % 100 (Udalak berak zuzenean, edo herriko alkarteek antolatuta) euskeraz izan ziralda adierazoz.

Dimako Udalaren oharra
"Artikulu labur honen bidez Dimako Udalak zehaztapen bat egin gura dau 2025eko garagarriaren 1eko BEGITUN (453. alea) jaso ziran datuen ildotik. Ale horretan EAEko kultur sareari buruzko datuak emon ziran; Kulturklik atarian erregistrautako ekitaldiak oinarri hartuta ateratakoak, hain zuzen

be. Datuon artean euskeraz edo ele bietan egindako ekitaldien gainean honakoa jaso zan:

'Euskal kulturaren panoraman, euskerearen erabilera funtsezko elementua da. 2024an ekitaldien erdiak inguru euskeraz edo ele bietan egin ziran (...). Gipuzkoan zazpi eskualdeetatik seik gaintitu eben % 50eko langea (...). Bizkaian, aldiz, zazpitik bostek gaintitu eben muga hori, eta Durangaldea eta Markina-Ondarroa izan dira euskeraz gehien programau ebenak (% 58,4 eta % 61,5 hurrengo hurrengo)'.

Arratiako datuen gainean honakoa jaso zan: 'Holan, euskeraz egindakoa jardueren % 75eko langea gaintitu eben herri baka-rak Arteak (% 100), Areatza (% 83,33) eta Lemoa (% 79,49) izan ziran, hurrengo hurrengo'. Dimari buruzko datuak artikuluari erantsi-tako grafiko baten agertuten ziran, eta grafikoaren arabera, euskeraz antolatutako jarduerak ez ziran % 60ra ailegetan. Baina Dimako Udalak argitu gura dau, 2024an Diman antolatu ziran kultur arloko ekitaldien % 100 (Udalak berak zuzenean, edo herriko alkarteek antolatuta) euskeraz izan dirala".



IGORRE

Aurtengo Inbiu Eguneko erronkea, giza kate espiral luzea egitea da

Urri lehenengoaren 20an ospatuko da Igorreko Euskera Eguna eta hilaren 12an aurkeztuko da ekimena Lasarte Aretoan.

Erredakzinoa

Inbiu Egunean, herri bazkariak eta beste jarduerak gainera, jentearen partaidetzea behar dauan erronka bateri helduko deusie euskera za-leek: futbol zelaia beteko dauan giza-kate espirala egiteari, hain zuzen be. KtK kooperatibeak izango dau honen antolakuntzearen ardurea. Lasarte plazan batuko da jentea eta han hasiko da katea sortzean. "Kate hori, Igorreko kaleetatik joango da alkarteetako jentea batzean. Puntu zehatzetan egongo dira. Zuztertxuk eta Galtxago-

riek lagunduko dabe giza-katea sortzean" azaldu deutso BEGITORI Idoia Zuluaga antolaluntzakoak. Eingok eta Musika Eskoleak ekarritako talde batzuk egongo dira giza katea pasetan dan 3-4 lekutan. "Holan, 13:00ak aldera helduko gara futbol zelaira eta han egingo dogu espirala" dino Zuluagak.

Harmailetan eta zelaian

Harmailetatik ikusi ahal izango da espirala. Kiribilaren erdian, Arantzarteko jantzariak aureskua egingo dabe eta hau osotutakoan koreografia bat egingo da pu-

blikoagaz. Behetik kamara bigaz eta goitik dron bategaz grabauko da ekintza osoa. "Espero dogu dibertigarria eta hunkigarria izatea. Jentea euskerearen alde agertuko da eta idea da ondo pasetea". Zenbat eta jente gehiagok parte hartu, orduan eta ikusgarriagoa izango da giza kate espirala. "Ez bakarrik alkarteetakoak, igorreztar guztiak etortea gura dogu. Eta Arratiako jentea be deituko dogu" dino Zuluagak. Hau da, ondo pasetako gogoia daukan edonor izan daiteke katebegi, giza kate espirealean.



ZEANURI

Zeanuriko finala eta San Lontzoko Bola Txapelketak jokatu ziran San Lontzon



Belen Astondoa, Gidor Astondoa eta Jaime Gartzia.

Erredakzinoa/Jon Urutxurtu

Abuztuaren 11n jokatu zan Zeanuriko Bola Txapelketako finala eta Jaime Gartzia nagusitu zan San Lontzon. San Lontzoko Txapelketea be jokatu zan, Belen Astondoa nagusitu zan andrazkoenetan eta Gidor Astondoa umeen txapelketan. Zeanuriko Txapelketan, udan

auzuneetan jokatu diran bost txapelketetako —Altzuakoa, Undurragakoa, Ipiñaburukoa, San Justokoa eta San Lontzo bertakoa— lehen hiru sailkatuek hartu eben parte. Finalera heldu ziran bolarien artean andrazko bat be egon zan: Dorleta Goioaga undurragaztarra. Bigarren, Auritz Gortazarrek egin eban eta Javier Ozerinjauregik, hirugarren.

Kofradien Arteko Txapelketea Zeanuriko bolarien hurrengo hitzordua Altzustan izango da, urri bigarrenaren 4an, San Migel jaietako egitarauaren barruan. Kofradien Arteko Taldekako Txapelketea jokatu da, eta udalerria osotuten daben zazpi kofradietako ordezkariak hartuko dabe parte. Talde bakotxa lau bolarik osotuko dabe.

IGORRE

Motorren hotsa, musikea eta jana motorzaleen topaketen XXV. urteurrena ospatuteko Igorren

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 5 eta 6an Arratiako Motor Taldeak antolatutako XXV. konzentrazinoan, Arratia eta Arratiatik kanpoko motorzaleak batuko dira, bailaratik ibilbidea egin eta alkarregaz aisialdia konpartiduteko. Narcis Rocak bere motor gaineko akrobaziak txundituko dau publikoa zapatu arrastian.

"Urteurren honetarako herriak gehiago parte hartutea eta giroaz blaitzea gura genduan. Horretarako, Igorreko Udalaren laguntzeagaz, Gotx elektrotxarangea kontratatu dogu zapatu arrastian herriko hainbat leku girotu eta konzentrazinoaren gunean amaituteko" azaldu deusie BEGITORI Arratia Motor Taldekik. Musikea egongo da, beraz, baina ez da egongo aurreko urteetan egon dan moduko kontzerturik, jente gitxi egoten zalako. "Aurten gaueko kontzerturik ez kontratetea ebatzi dogu, gaueko asistentzia asko bajatuten dalako. Alde batetik, astegoen berean Arteako jaiak dira eta inguruko jentea Arteara joaten da. Beste aldetik, motorzaleak ez dira berandura arte geratuten" azaldu dabe.

Urtero 180 lagunuen bueltan batzean dira Arratiako topaketetan, eta aurten beste horrenbeste espero dira. "Bizkaia osoko motorzaleak etorten dira, Gipuzkoako batzuk, Araba, Burgos... Ohiko lagun eta talde asko, motorzale gazteek sortutako beste talde batzuk be bai, belaunaldien arteko erreleboa bermatuten dabenak, edo hori gurako geunke, sikan. Etorten diranen kopurua eguraldiaren arabera izaten da, baina espero dogu eguraldi ona egitea eta ahalik eta jente gehien etortea. Halanda be, urteak pasau ahala, 200 partaide inguru izate-tik, 150-180 inguru izatera pasau

gara". Aurten, 25. urteurrena danez, izena emoten dabenek AMTren giltzatakoea jasoko dabe. Eta beste batzuetan legez, izen-emoteak pernila eta beste sari batzuen zozketan parte hartuteko aukerea emoten dau.

Ibilbidea, akrobaziak eta beste gauza asko

Partaideak barikuan, hilak 5, 18:00etan batuko dira Garben eta izena emongo dabe bazkari eta afarietarako. Ostein, 20:00etan, afari-meriendea egingo dabe, saltxitxa ogitarteko bategaz eta 21:00etan karaokea egongo da. Hurrengo egunean izango da festa nagusia. Bezperan izena emon ez dabenek egin beharko dabe izen-emotea txosnan 10:00etatik aurrera, eta 12:00etan ekingo deusie Arratiatik zeharreko bira turistikoari parkinetik abiatuta. Ibilbidea egin ostein, 15:00etan, bazkaria izango dabe Igorreko eskolan.

Bazkalostean, 17:00etan, Narcis Rocak txunditu egingo ditu bertaratutakoak motorragaz egiten dituan akrobaziak. "Motorakrobaziak konzentrazinoen historiaren parte dira. Profesional itzela danez, Narcis Rocak, gupil biren gainean daukan kontrolagaz eta akrobazia arriskutsuakaz gozatuko dogu, gutako edozein motorzaleentzat ezinezkoak diran akrobaziok ikusita. Herriko jente asko erakarten dauan jardurea be bada". Eta ez da lehenengo aldia Roca Arratiara datorrena, topaketa honetan egonda dago eta bere ikuskizunak arrakasta handia izaten dau publikoaren aldetik.

Ostein, 18:00etan, pernila zozketatuko da eta 18:30ean, Gotx elektrotxarangeak animauko dau giroa txosna inguruan. Jaia-ri amaieraa parillada bategaz emongo jako, 21:30ean.



IGORRE

Igorretik pasatukeran Gueñes-Itxaso autopista elektrikoak sai zuriarengan izan ahal dauan eragina ikertzeko agindu dau Fiskaltzak

Fiskaltzak Gobernuari eskatu deutso Igorreko Atxarte inguruan, Gueñes-Itxaso autopista elektrikoko lineek sai zuriarengan izan ahal daben eragina ikertzeko.

Erredakzinoa

Izan be, linea honeek, egoera zaurgarrian dagoan sai zuriarentzako mehatxua dirala ondorioztatzen dabezan adituen txostenak dagoz.

Hori dala-ta, Auzitegi Nazionalari eskatu deutso Ingurumeneko Estatu Idazkaritza zigortu dagiala Igorren linea elektriko horreek eregiteak izan leiken eragina ikertze-ra. Izan be, sai zuria, zaurgarri moduan katalogauta dagoan arren, desagertzeko arriskuan egotera pasau daiteke-ta.

Ministerio Publikoak abuztuaren 8an jakinarazo eban agindua prensa ohar batez, Auzitegi Nazonalean aurkeztutako administrazioagazko auzi-errekurso bateri erantzuteko idatziategaz batera. Oharraren arabera, linea horreen eraikuntzak "sai zuri arruntak oindino irauten

dauan, habia egiten dauan eta ugaltzen dan eremu urrietako bateri eragiten deutso". Idatzian adierazoten danaren arabera, "adituen txostenek ondorioztatu dabe Gueñes-Itxaso 400 kv-ko aireko linea elektrikoaren trazadurako T-40tik T-44rako euskarriak eregitea eta instaletea mehatxu esanguratsua eta larria dala sai zurientzat Bizkaian, Igorreko habitataren kalidadea murrizten daualako". Horregaitik, Auzitegi Nazionalari eskatu deutso epai baten holan emon dagiala, eta Ingurumeneko Estatu Idazkaritza be kondenau dagiala ingurumen erantzukizuna exijiduteko prozedurea izapidetze-ra (epe judiziala ezarritz bete daiten), "ingurumen erantzukizunik dagoan ala ez zehazteko, eta, holan bajagoko, beharrezko neurriak hartzeako, kalte barriak saihesteko eta konponduteko".



Gora Andra Mariak!



Arteako Udalak eta Jai Batzordeak

JAI ZORIONTSUAK
OPA DEUTSUEZ

AREATZA

Mendi ibilbidea, Areatza uribildua eta Gorbeia inguruko produktuak gozatzeko aukerea hilaren 13an

Gorbeia inguruko paisaje eta produktuak ezetuten emoteko, mendi ibilaldia edo Areatzatik bisita gidatua, azokea eta dastaketak prestatu ditu, besteak beste, urri lehenengoaren 13rako Gorbeialde Landa Garapen Alkartek, Areatzako Udalaren laguntzeagaz eta Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren Turismo Sailaren babesagaz, 2021ean abiatutako Gorbeia Altxorak proiektuaren barruan.



Erredakzinoa

Gorbeia inguruko historia eta paisajeen barri jakin gura dabenek 09:00etan daukie hitzordua Larredereko parkinean. Ibilbidea 12:30ak arte luzatuko da eta partaideek 10 km egingo ditue ibilbide erraz baten, balio etnografiko eta arkeologiko handiko lekuak ikusiz; historiaurreko dolmen bat tartean. "Ibilbide hau konbitea da paisajeari beste begi batzukaz begiratuteko, beti

ikusten ez dana deskubriduteko, eta gizakiak espazio hau denporan zehar zelan bizi eta eraldatu dauan ulertuteko".

Mendiko ibilaldia egin beharrean, Areatzako uribilbidua ezetuteko aukerea be badago 11:30ean eta herriaren sorrerea eta bere historia gaur egunera arte deskubriduko dabe bisita gidatu honetarako erreserbea egiten dabenek. Ostein, Urigoitiko txorizoak eta txakolina dastatu daitkez, Jazz Kollektive Quartet tal-

deak musikea jo bitartean. Taldeak ordu biko kontzertua eskainiko dau, 13:00etatik 15:00etara. Gastro-gunea be egongo da, umeek jolasean egiteko beste gune bat eta Turismo informazino gunea.

Mendi ibilbiderako, Areatzako uribilbidetik bisita gidaturako eta dastaketetarako plaza mugatuak dagoz eta erreserbak egin behar dira gorbeiaeuskadi.com webgunean. Mendi ibilaldia eta Areatzako uribilbiduari bisiteak 5 euroko prezioa daukie eta dastaketek 3 euro bakotzak.

Arrastiko 19:00etan, Korrontzi taldeak *Izan bagara* ikuskizuna eskainiko dau. Ikuskizun honek, jantzak, herri kirolak eta folk musikea buztartzen ditu.

Bizkaibus

Kanpotik Areatzara joateko, kotxea erabili beharrean, antolatzaileek Bizkaibus zerbitzua erabilten animau gura dabe jentea, bertara joatea jasangarriagoa izan daiten. Astegoienetan, 3917 linea pasetan da Areatzatik orduro Bilbotik Zeanurirako eta Zeanuritik Bilborako norabideetan.

IGORRE

Igorreko eskolako patioko obrak hileon amaitzea aurreikusten dau Udalak

Erredakzinoa

Aurreko legealdian hasi ziran patioa hobetuteko lanak eta aurtengo udan dabiz egiten hirugarren eta atzen faseko lanak. Lan honeen helburua "hezikuntza espazioak hobetuten jarraitzea, herriko ikastetxeen eta familien beharrei erantzunez" dala adierazo dau Udalak. Urri lehenengoaren amaierarako lanok amaituta egotea espero da.

Fase honetan, umeentzako jolas barriak ipiniko dira eta haurreskolarako zoladura barria egingo da. Hau, familien eskaerea izan dala dinoe Udaletik; "udaz

kanpoko hilebeteetan umeak sarri bustita edo lokaztuta ibiltzen dira eta espazio egokiago baten beharra" dagoalakoan.

"Holango inbersinoek funtsezko papera daukiela

umeentzako seguruak, irisgarriak eta hezitzaileak diran espazioak bermatzeko" azpimarratu dau Udalak eta familiei "obrak iraun bitartean izandako pazientzia" eskertzen deutse.



BASERRIAK

Baserria, etxe maite gaixoa

Baserriak, euskal etxe sinboliko nagusitzat joten dogun horrek gainbehera nabarmena bizi dau.

Alvaro Rabelli

Ez dago zalantzarik, euskal etxe sinbolikoa zein dan galdetu ezkeror, erantzuna erabatekoa da, baserria. Baserriak batzean ei ditualako euskaldunon baliorik sakonenak; hau da, jatorria, identitatea, hizkuntzea, lana eta familiaren iraupena, besteak beste. Antza, baserria danok maite dogu, edo.

XIX. mendeko foruen galereagaz batera, baserria mitifikaua izan da, herri oso baten sinbolo bihurtzeraino. Baserria laudatua izan da, kantatua eta artera eroana. Lehenengoz foruzaleen olerkiek jaso ebenari ondorengo abertzaleek be segidea emon eutsien, gaur arte.

Idilioa Arratian

Aurrekoaren adibide argia dogu Anselmo Guinearen (1855-

1906) margolana. Italiako eredu jarraituz konposizino ohiturazalea eta idilikoa margotu eban Arratiako baserri bat protagonista eukala. *Idilioa Arratian* izeneko margolanean Arratiako baserri arrunt baten aurrean (arkupe bako baserria, etxebizitzara igoteko eskilarea albo baten eta laba baserriko hormari deusola daukana) xalo-xalo mutiko bat zigarroa prestetan ondoan daukan neskatxagaz berba egiteko gogoz edo, azaltzen da.

Unamunok berak gogor kritikau ebazan horrelango konposizinoak, ez ebelako baserritarren benetako irudia jasoten.

Etxe zuri, teilatu gorri eta zelai berdea

Foruak aitatu doguz, baina, foruen galerak berak krisi sakona eragin eban baserri munduan, hainbestearaino ze baserritar as-

kok nekazal jarduerak alde batera itxi ebezan industrian behar egiteko edota Ameriketara emigretako. Kontraesana dirudian arren, baserrien mitifikazio hori bere gainbehereagaz batera etorri zan.

Baina, zein gainbeheraz dihardugu? Argi dago, gainbehereaz berba egin ahal izateko, baserriari jagokon jatorrizko jardueraz berba egin behar dogula, hau da, nekazaritzaren beraren gainbehereaz. Berau, gure lurraldeetan, esan lez, XIX. mendean hasi zan, XX. mendearen lehenengo erdikaldean azkartu eta bigarren erabat gauzatu da. Gaur egun, agerikoa da sano gitxi dirala

nekazaritzaz edota abeltzaintzaz bizi diran baserriak, eta urterik urte oindino gitxiago dirala esan beharko geunke, beti salbuespenak salbu.

Beraz, jarduera amaituta zer gertatzen da eraikinagaz, etxeagaz? Bada, berau be gainbehera datorrela, abandonau eta jausteraino.

Hain zuzen be, gaur egun baserriaren galerea aitutzen dogunean, etxea bera, eraikina, aitatu beharrean gagoz.

Arratiako edota Bizkaiko datuen faltan, esan geinke Gipuzkoan egindako ikerketa baten bertako baserria oindino populazioaren % 25aren eguneroko etxebizitza

dala, baina erroldatutako 40.000 baserri ingurutik urtero 2.000 baserri abandonauta gelditzen dira. Galera ikaragarria da datuok lurralde guztietara eroaten badoguz.

Gainera, gitxi dira galera horri aurre egiteko hartu izan diran neurriak. Gipuzkoako herri txiki batzuetan udalek hutsik dagozan baserrien alokaerea bultzatu dabe herri txiki horreetako etxebizitza arazoei aurre egiteko asmoz.

Historia apur bat

Gaur egun ezaguna dan euskal baserriak, Euskal Herriko eremu atlantiarreko landetxeak,



XV. mendean dauka jatorria. Ordukoak dira lehenengo base-
rriak, baserri-tolare tipologiakoak,
sagardaogintzeari lotuak. 1.000
metro koadroko egurrezko egi-
tura erraldoiak, dana haretzez
egina. Europa osoan ez da inoz
holangorik egon.

Antza, Alemaniako Suabiako
arotzek zerikusi handia euki eben
eraikuntza horreek zelán egin
irakasteko. Horrezaz gainera, zerk
edo zerk baserrien hastapen hau
bultzatu baeban, hain zuzen be,
XV. mendeko ontzigintzea eta na-
bigazinoa izan zan, sagardao kan-
tidade handiak eskatzen ebazan
eta itsasoratzeak.

Holan, baserria garatzeaz ba-
tera benetako iraultza demogra-
fiko eta ekonomikoa jazo zan
lehen nekazaritzarako ozta-ozta
balio eben lurraldeetan, gure lu-
rralde menditsu eta euritsuetan.

Urte gitxitan baserriak gure pai-
saia berdearen jaube egin ziran,
lur emonkorretatik mendi magal
malkartsuetaraino.

Ordutik hona, baserria, krisiak
krisi, garatuz eta eraldatuz etorri
zan XX. mendera arte. Harriak le-
kua egin eutsan egurrari, artoak
sagardaoari, honek haragia eta
esnearen ekoizpenari, gaur egun
nekazal eta abeltzaintza jarduera
gehienak alde batera itxi arte.

Garapen horretatik daukaguz
24 baserri tipologia desbardin
Bizkaian, Gipuzkoan, Araba eta
Nafarroako inguru atlantikoan,
Lapurdin eta Behenafarroan.

Baina, beti gauza bat gogoratu
behar dogu, baserria beharlekua
izan da, horrexetarako sortu zan,
eta bere itxura arkitektonikoa beti
egokitua eta eraldatua izan da
sasoian sasoiko lan eta jardueren
beharrianak kontuan hartuta.

Beharbada, horregaitik base-
rriko "etxebizitza" ez da beti ga-

rrantzitsuen a izan.

**Baserria, aitita-amamaren
etxe zaharra?**

Ez dakigu horregaitik edo baina
gaur egun baserriak arazo larriei
aurre egin behar deutse jentea-
ren eguneroko etxebizitza arrunta
izaten jarraitzeko. Bai, betiko jar-
duerak alde batera itxita, etxebi-
zitza daukagu, baina horra hor
arazoak. Etxebizitza gisa baserria
ez da beti eroso. Batzuk herri-
guneetatik, zerbitzuetatik, urrun
samar dagoz. Bertara heltzeako
bide eta kaminoak ez dira beti
onak. Beste batzuk, gainera, ez
dagoz egoera onean, errazoi
askorengaitik ez dira sasoiz kon-
pontzen, degradazio handia
sufriduten dabe. Asko eta asko
hondakin hutsak dira.

Baserria konpontzea be ez da
kontu makala, dirutza behar da
hain etxe handiak eta zaharrak
zaharbarritzeko. Gainera, gaur
egun, lehen egiten ez zan mo-
duan, heredentzian jasotako on-
dasunak alkarbanatzeko ohitua
erabat errotu da, eta hara zer
dinoan esaera zaharrak: "Jaube
askoren astoa goseak hil". Beraz,
baserria beti lurrera.

Beste batzuetan, baserria
aitita-amamaren etxea da, eurak
bizi artean zutik dirauana, baina
hil ondoren baserria atoañ hon-
datzen hasten da, senideek ez
dabelako bertan bizi gura, ezin
dabelako...

Ohikoa be bada gure artean ju-
bilazinora heltzeaz batera herriko
edo plazako pisu batera aldatzea,
edadeagaz baserria lar handia,
deserosoa eta garestia ei dalako.

Askotan, konpondu gura bai
baina, baserriaren balio arkitekto-
nikoak be ez dira kontuan hartzean
eta betiko galtzean dira. Arratian,
sano ohikoa da baserri ondoko

laba galduta ikustea, bertan inork
ez daualako daborduko ogia egi-
ten. Halanda be, gurean, oroko-
rrean kultura falta nabarmena
igarten da ondarea izan leitekena
jagoteko.

**Euskal baserria babestuko
leuken legea beharko geunke?**

Gaur egun, esango geunke base-
rria mutur biren artean dabilala,
batean, etxebizitza zantarrak eta
hondatuak daukaguz, asko eta
asko hutsik; eta, beste muturrean
lujozko etxetzat hartu geinkeza-
nak. Baina zer egin baserria etxe
arrunta izateko?

Etxebizitza krisialdia bizi dogun
honetan baserria urtenbidee-
tako bat izan leiteke, horretarako
mistifikazio hori alde batera itxi
beharko geunke, baserria zer izan
leiteken birpentsau, benetako ba-
lio ekonomikora ekarri, ez oingo
prezio astakeriak harri meta eta



pipiak jandako egur pila huts
batengaitik. Laguntza publiko
asko beharko litzatekez, ezpabe-
re, etorkizunean zutunik iraungo
daben baserriak landa-hotelak
baino ez dira izango.

Olaetxe
OPTICA S.L.

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Blatza deya jeltze
-Salmenen zein aldatu
Lurrak (erakutsi, landat, basat...)
Etxebizitza (pauk, basat, etxak...)
Gorajak
Lokal komertzialak
Pabilioak...
-Balnearioak

Bada deya proiektu
Irakin berak erakitzeko
Emetarako
AKTIBOTE-proiektuak
-Barne diseinua
-CEE eta ITE-ak
-Hingintza ahoikularitza
-Negozioak irekitzeko
kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Lehendakari Agneta 25. Solera - Igara
Bilbaoa 48 01 31 94 - 45 46 30 31
Bilbaoa 48 01 31 94 - 45 46 30 31
Bilbaoa 48 01 31 94 - 45 46 30 31
Bilbaoa 48 01 31 94 - 45 46 30 31

ASESORIA
Gorbeialde

Juridikoa - Fiskala - Lanak - Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Kili-Kili
Amor eta Pasaikultura

Lehendakari Agneta 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 42 81

BEGITU-LAGUN
ETA SARI POTOLO HONEEK
IRABAZI!

Begitu-lagun egin ezker, edo Begitu-laguna izan eta barri bat ekarten badozu (biak sartzean dira zozketan) abenduaren 20ra arte arte bi sari honeen zozketan parte hartuko dozu:

SARIAK

A
Zeanuriko Zuhaitz Etxetan gaua eta gosaria lagun birentzako.

B
Dimako Garena jatetxean Gurea menua lagun birentzako.

Ondino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:
Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____
Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

FUTBOLA

Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñak hilaren 6an egingo dau Gorbeiara igokerea

Erredakzinoa

Gorbeiara igokerea, bazkideei omenaldia, Pagomakurren bazkaria eta Areatzan kontzertua egingo dira hileko lehen zapatuan. Euria egin ezkerro udaletxeko arkupeetan egingo da bazkaria. Areatzan egoitzea daukan Athleticzaleen Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñak urtero antolatuten dau jaia eta aurtengoa hilaren 6an izango da. Aurreko egunean umeakaz igongo dabe Arrabako aterpetxera kide batzuek. Goiza Gorbeiaiko kurutzera igoten pasauko dabe futbolzaleek bertan argazkia aterateko. Bajatukeran hildako bazkideei omenaldia egingo deutsee Pagomakurren eta bertan bazkalduko dabe, sagardotegi erako catering-a. Iluntzeko 20:00etan barriz, Areatzako Plazan

batuko da jentea Madrildik datorren eta Kortatu talde mitikoaren kantuak jotzen dituan Aizulren kontzertuaz gozatzeko. Sagardotegi motako bazkaria Trikitxotx enpreseak daroa Pagomakurrera eta honetan parte hartzeako aldeztu aurretik emon behar da izena. Hilaren 3ra arte, 691 529 748 (Iker) telefonoan egin daiteke izen-emotea. Egitaraua 09:00etan, urtekerea Areatzako frontoitik. 14:30ean, hildako bazkideei omenaldia Pagomakurren. 15:00etan, sagardotegi erako bazkaria Pagomakurren. Euria bada udaletxeko arkupeetan. 20:00etan, Aizul, Kortaturen tributo taldearen kontzertua Gudarrien Plazan.



MENDIA

Ubideko Bira hilaren 14an izango da

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 14an izango da Amexier Mendi Kirol Taldeak antolatutako Ubideko Bira. Ibilbide bi dagoz aukeran, luzeak 20 km eta 786 metroko desnibela dauka, eta laburrak 12 km eta 469 metroko desnibela. Partaideak 09:00etan urtengo dira Ubideko plazatik, Ubide inguruko mendi eta bideak ibilteko, paisajeaz eta beste partaideen konpainiaz gozatzuz. Ibilbidea plazan amaituko da eta han, txorizo eta gaztai pintxoak eta sagardoa egingo dira ibiltarientzat.

Izen-emotea

Izena aldeztu aurretik edo egunean bertan emon daiteke. Aldeztu aurretik, kronoak.com webgunean hilaren 11ko 23:59k arte egin daiteke. Holan egin ezkerro, merkeagoa da: helduek 7 euro pagau

behar dabe eta 12 urtera artekoek 5 euro. Egunean bertan 08:00retatik aurrera emon daiteke izena plazan. Holan egin ezkerro, helduek 10 euro pagau beharko dabe eta 12 urtera artekoek 7 euro.



MENDIA

Zeanuriko Ermiten XXXVI. Mendi Martxea, urri lehenengoaren 6an, zapatuan izango da

Urri lehenengoaren 6an, zapatuan, izango da Zeanuriko Ermiten Mendi Martxea. Aurtengoagaz hogeta hamaseigarren urtea beteko dau 1988an jaio zan eta klasiko bihurtu dan oinezko martxa honek.

Jon Urutxurtu

Orduan antolatu eban lehen aldiz Joko Alai alkarteko mendi sailak eta ordutik hona, pandemia garaian izan ezik, hutsik egin barik eutsi deusie zeanuriztarrek urteroko hitzorduari. Helburuak hasikerako berberak dira: zapatu goiza natureagaz harremanetan eta kirola eginez igarotea, eta herritarrei zein kanpotarrei Zeanuriko inguru zabalak eta ermiten ondarea ezetutera emotea. Ez dira gitxi, izan be, herri honetan sakabanaturik dagozan ermita edota eleizak, guztira hoge.

Hiru ibilbide aukeran

Izen-emotea goizeko 07:00retatik aurrera zabalik egongo da herriko plazan eta urtekerea 07:30ean izango da. Ibilbide osoa egiten dabenek 35 bat kilometro beteko dabez. Plazatik abiatzeaz batera San Antonio eta San Isidro ermiten ondutik igaroz hasiko dabe martxea parte hartzaileek, eta guztira



hemeretzi ermita edota eleizaren ondutik igaroko dira; aurtan be, Igiriñaoko (Gorbeia) Edurretako Amarena kanpo geratuko darta. Beste ibilbide bi be badagoz aukeran: bata, ibilbide ertaina, 23 kilometrokoa eta bestea, laburra, 13 kilometrokoa. Jan-edana hiru tokitan banatuko da: Altzuan, Ipiñaburun eta San Blasen. Amaitzerakoan, ziur ziteari erantzuteak merezi izango deu-

tsiela ibiltariei, Zeanuriko ondare erlijiosoa ezetuteaz gainera, sasoi honetan natureak azaltzen dauan koloreen sinfoniaz gozatzeko aukera ezin hobe eskainiko deusielako Zeanuriko Ermiten XXXVI. Mendiko Martxeak. Gainera, aukera eder bat be izan daiteke, hiru aste beranduago, urri lehenengoaren 27an jokutuko dan Gorbeia Suzien mendi lasterke-tea prestatzeko.

MENDIA

Dimako ermiten ibilbidea laburtu egin dabe jente gehiagok parte hartu ahal izateko

Erredakzinoa

Urtero egiten da ermiten ibilaldia Diman, baina parte hartzea ez da inoz handia izan, ibilbide luzea dalako, eta, gainera, bizkor egin behar izaten dalako: goizeko 07:00retan hasi eta 14:00ak inguruan amaitu gura izan ezkerro, ermita bakotxean argazkia egin da. Izan be, 32 kilometro inguruko ibilaldia izaten zan, herriko parrokia eta 15 ermita ingurutik pasauta. Hori dala-ta, Dimako ermiten ibilaldia jente gehiagok egin ahal izateko, aurtan ibilaldiaren erdia egitea pentsau dabe antolatzaileek, eta datorren urtean, 2026an, beste erdia. "Aurtan, plazatik urtenda, Piedadean egingo dogu lehenengo argazkia, handik San Migel Txiki, San Roke (Olazabal), San Ignazio (Arostegieta), Santa Maria Magdalena

(Lamindao), San Blas eta San Fraisku (Indusi) lotuko doguz, eta Indusitik Ugaranara bajatu. Gainerako ermitak 2026ko ibilaldian bisitauko dira" azaldu deusie BEGURI Dimako Udaletik. "Hamabi kilometro inguru dira, aurtan

erdia baino ez dogulako egingo eta datorren urtean beste erdia" gehitu dabe. Ibilaldia hilaren 13an izango da herriko plazatik abiatuta. Ordua zehaztu barik egoan BEGITU zarra-tuterakoan.



TRONTZEA

Ruth Linaza lemoaztarra Arabako Trontza Txapelketako txapelduna

Abuztuaren 7an jokatu zan Gasteizko plazan Arabako Trontza Txapelketea eta Ruth Linaza Lemoakoak eta Garbiñe Lopez de Uraldek osotutako bikoteak jantzi eban txapela.

Erredakzinoa

Horretarako, Sara Jimenez de Aberasturi eta Maite de Feliperi irabazi eutseen, 1,05 zirkunferentziatziko pinu egurrak 3 minutu eta 53 segundotan ebagiz. Bero handia egin eban, eta aurkari gogorrak izan ebazan Linaza-Lopez de Uralde bikoteak. Galtzean hasi ziran baina zazpigarrenen ebaketan parekatutea lortu eben eta erritmoari eutsiz, irabaztea. "Sensazino onakaz joan ginan baina aurrean bikote gogorra geunkan. Lehenengo ebaketea batera bota genduan. Ostean, eurak aurreratzen hasi ziran eta ebaketa erdiko bentajea hartu eben

zazpigarrena egin arte. Guk gure erritmoa mantenidu genduan eta zazpigarrenean parekatu, eta zortzigarrenean aurea hartu genduan, amaitu arte" azaldu deutso BEGITURI Lemoako kirolariak.

Trontza erakustaldi gitxi

Andrazko bikote bi baino ez ziran egon txapelketan eta Linazak trontzalariek plazetan lekuri ez izateari egozten deutso errua. "Ez daukagu erakustaldi asko egiteko aukerarik eta hori nabaritzen hasita gagoz. Ez badaukazu lekuri plazan, jentek ez dau herri kirol hori egiten" salatu dau Linazak. Izan be, bere eretxian, trontzeari ez jako emoten daukan garrantzia.



Ruth Linaza eta Garbiñe Lopez de Uralde txapelakaz.

MENDIA

Gorbeia Suzien hilaren 27an

Erredakzinoa

Urri lehenengoko atzenengo aste-goienean, hilak 27 eta 28, Gorbeia Suzien mendi lasterketea jokatu da. Zapatuan goizeko 09:00etan Sky froga jokatu da Skyrunner World Series-etarako puntuagarria izango dana eta 11:00etan 21k lasterketea. Domekan, umeen txandea izango da. Aurtengoa 12. ekitaldia da. Edizino honetan Arratia bailarako gazteen (23 urtez azpikoak) parte-hartzea sustatuten ahalegindu da antolakuntzea, eta horretarako 21 kilometroko lasterketako

izena emoteko epea egun bat lehenago zabaldu jakien gazteei. Gainera, bagilaren 22an lasterketearen ibilbidearen zati bat egiteko aukerea euki eben Aitor Ajuria, Onditz Iturbe eta Itsasne Urkiagagaz. Gazteek entrenamendu, elikadura eta materialen gaineko galderak egiteko aprobetxau eben. Arratiako 50 gazte inguruk emon dabe izena 21 kilometroko lasterketarako. 1.500 lasterkari apuntu ziran lasterketa luzeko zozketara eta 500 plaza dagoz. Lasterketa laburrerako dorsalak be 10 minututan agortu ziran. Skyrunner World

MENDIA

Lemoatx Traileko mendi lasterketa eta martxetarako izen-emotea zabalik dago

Erredakzinoa

Zemendiaren 16an egingo dira 25K martxea eta lasterketea, 17K lasterketea eta 8,5K martxa familiarra. Izena *buscametas.com* webgunean emon daiteke zemendiaren 9ra arte. Aurten lasterketeak, "bardintasunaren aldeko konpromisoa eta indarkeria matxistearen kontrako jarkera irmoa" adierazo gura dau eta "morez jantziko da". Ganzabal Mendi Taldeak hiru ibilbide prestatu ditu bederatzi-garren edizino honetarako. Luzeenak 25 kilometro eta 1.174 metroko desnibela daukaz eta bertan, lasterketa luzea zein martxea egingo dira, Belatxikieta, Pagozelai eta Lemoatxatik pasauta. Ibilbide ertainean

barriz, 17 kilometro eta 815 metroko desnibelekoan, lasterketa laburra jokatu da; hau, Belatxikieta eta Pagozelaitik bajatuko da Lemoara, Lemoatxara

igon barik. Martxa familiarrak, 8,5 kilometro eta 358 metroko desnibela daukaz eta Lemoatik Lemoatxara igon eta bueltan bajatuko da.



PELOTEA

Udako Torneoko Urrezko Liga jokatu dau Amaia Aldaik

Erredakzinoa

Udako Master Laboral Kutxa Txapelketea sartu da Urrezko Liga izeneko fasean. Amaia Aldai eta Arrate Bergara bikotea da sailkatutako lau bikoteetako bat, eta txapela lortzeako lehian bere onenak emoten saiatuko dira. Finala hilaren 28an jokatu da. Ligaxka fasean zortzi bikote egon ziran lehian. Aldaik eta Bergarak galdu eben aurreko faseko atzen partidua Olatz Arrizabalaga eta

Enara Gaminderen kontra (22-15), baina jokatu aurretik be sailkatuta egozan Urrezko Ligarako. Galdu




Amaia Aldai.

arren, sensazino onakaz amaitu eban dimoztarrak eta finalera ailegetako gogoagaz, BEGITURI adierazo eutsanaren arabera. Urrezko Ligarako lau bikote sailkatu dira: Aldai-Bergara, Olatz Arrizabalaga-Itxaso Erasun, Mirian Arraiza-Andrea Capellan eta Aizane Ibarrola-Enara Gaminde, hain zuzen be. Fase honetako lehenengo partidua dimoztarrak eta bere bikotekideak jokatu dabe, urri lehenengoaren 6an, Urduñan, Arrizabalaga eta Erasunen kontra.

Series-etarako zirkuituan puntapuntan dabizen lasterkariak etorriko dira, Euskal Selekzinoak be goi mailako ordezkariak bialduko dauz eta gure inguruko mendi lasterkari onenak be bertan egongo dira. Lasterketak ikustera joateko autobus zerbitzua egongo da. "Aurten be apustu handia egingo dogu gure inguruak babesteko; 2024an lortutako Green Label CXM Trail ingurumen-ziurtagiria izaten jarraituko dogu. Horretarako autobus zerbitzua ipiniko dogu Pagomakurrera; 8 autobus ibiliko dira gora eta behera, etenbarik" azaldu deutsie BEGITURI antolakuntzatik. Domeka goizean, atzen urteotan egin dan legez, gero eta arrakasta handiagoa daukan umeen lasterketea egingo da.

"Harrobia zaindutea be badalako gure xedea. Maila guztietarako ibilbideak prestatuko dira". Lasterketak baino gehiago Lasterketetara girotzeko, zein lasterketen ostean mendi lasterkariet eta eurak ikustera joandakoek ondo pasetako, antolakuntzeak aurreko astean hasten dan egitaraua prestatu dau. Holan, Gorbeia Suzieneko ekintzak urri lehenengoaren 19an hasiko dira, Txusma Perezek, Ramon Malkorrek eta Kepa Lizarragak, Antxon Burcioren omenez egindako *The Mountain Family* liburuaen aurkezpenagaz. Igorreko Lasarte Aretoan izango da 19:00etan. Hilaren 27an, zapatuan, lasterketea amaitutakoan, lasterkarietzako bazkaria egongo da frontoian, urtero legez, txahal

bat erreko da. Bazkalostean, 16:30ean, Uxue Arroniz & Satur Ruakek kontzertua eskainiko dabe eta gero, 19:00etan, Joselontxos txarangeak alaituko dau giroa. Gaubean, 22:30etik aurrera, DJ Lander ibiliko da musikea ipinten.



ANTZERKIA

Erretiroa 75 urtegaz hartzea dauka gaitzat L/75 Barsanti konpainiaren antzezlanak

Erredakzinoa

Hilaren 8an, 19:00etan, Barsanti konpainiak L/75 (*Lanean Jarraitu 75*) antzezlan eskainiko dau Kulturguneko plazan. Umorez eta ironiaz, erretiroa 75 urtegaz hartzea dauka gaitzat kale ikuskizun honek. Ikuskizuna, 2024ko Leioako Umore Azokan estreinau zan. Mama Crea da lan honen ekoizlea eta Pako Revueltasen zuzendaritzapean, Aritza Rodriguezek, Asier Fragasek eta Juanjo Oterok egiten dabez aktore lanak.

Sinopsia

Mundu guztiaren ahotan dagoan L/75 kanpaina soziala aurkeztuko dabe persona ezezagun batzuek gure herrian. Sustatzaileek adierazo dabe "aro barri baten hasikere" izango dala eta askatasunaz, justiziaz eta giza eskubideez egingo dabela berba. Zer ete dago berba polit horreen atzean? Zeintzuk dira proiektu horren bultzatzaileen benetako asmoak eta nortzuk dira oindino inork ikusi ez dituan "sustatzaile eraginkor" horreek?



BERTSO SAIOA

Onintza Enbeita eta Aitor Etxebarriazarraga bertsolariak, Artean

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 8an, 13:00etan, Arteako jaien egitarauaren barruan Onintza Enbeitak eta Aitor Etxebarriazarragak bertso saioa eskainiko dabe herriko plazan. Onintza Enbeitak (Muxika, 1979) bizitza osoa daroa plazetan bertsoak kantetan; 16 urtegez hasi zan-ta. 2006an heldu zan lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalera eta 2018an txapela irabazi eban, Bizkaiko txapela jantzi eban lehenengo andrazkoa. Arratiara sarritan etorten da bertsoan, eta aurtengo urri lehenengoan, bere bertsoakaz gozatzuteko aukera bi izango dabez hurreratzaren diranek. Bigarrena eta azkena, Artean eskainiko dauan bertso saioa izango da. Beragaz Aitor Etxebarriazarraga egongo da. BDB Bertsolaritzaren

datuen arabera, Aitor Etxebarriazarraga Gabiola (Gernika-Lumo, 1993) fisikaria eta irakaslea da. Donostian bizi da eta Liliberts Bertso Eskolako kidea da. 22 urtegez hasi zan bertsoan. Lehen plazea 2015eko Busturialdeko Txapelketan izan eban. Bizkaiko Bertsolari Txapelketan 2018an parte hartu eban lehenengoz eta 2021ean finalista izan zan. 2022an Eskualdeko txapeldun izan zan eta Bertsolari Txapelketa Nagusian hartu eban parte.



IKASTAROAK

Areatza, Artea, Bedia, Dima eta Lemoako udal ikastaroen eskaintzea egin dabe



Erredakzinoa

Urrietan hasten da askorentzat benetan urtea. Uda ostean izaten dira, sasoiaren mantenidu, gauza berriren bat ikasi edo zaletasun bateri denporea emoteko ebatziak. Udalek ebatzi horreek gauzatzen lagunduten dabe prezio oneko ikastaro eskaintza eginez. Areatzak, Arteak, Bediak, Dimak eta Lemoak egindakoa dakargu hona.

Areatza

Eskulanak, Crossfit, Zumba, Spinning, Pilates, Mantenimendu gimnasia 62 urtetik gorakoentzat, Puntua eta kakorratza, Euskal dantzak, Ehoziri lanak, Joskintza, Luzaketak, Yoga eta 12-16 urte bitartekoentzako Dantza moderna dira Areatzako ikastaroak. Ikastarook urri bigarrenaren hasi eta bagilaren 19ra arte izango dira. Asteaz ordu eta erdikoez 95 euroko prezioa daukie; ordu bikoek 145 euro eta Euskal dantzak doban da.

Izena urri lehenengoaren 8tik

19ra emon behar da udaletxean goizeko 08:00etatik 15:00etara eta astelehenetan 15:30etik 17:30era be bai; edo labur.eus/Areatzaikastaroak estekan. Ordainketea zati bitan egingo da izena emoterakoan erdia eta abenduan beste erdia baina eskudirutan ordaintzen dabenez osorik ordaindu behar dabe izena emoterakoan.

Artea

Arteako ikastaroetarako izena hilaren 19ra arte emon daiteke udaletxean. Honek dira ikastaroak: Zurezko talla eta pirograbazioa, 3. adineko gimnasia, Zumba, Pilates, Hipo-pilates, Entrenamentu Funtzionala, Biodantza, 2014 eta 2019 urteen bitartean jaoitakoentzako Akrobaziak, Irakurleen Txokoa, 2-5 urte bitarko umeen familientzako Irakurketa Kluba eta 6-8 urte bitarteko umeentzako Irakurketa Kluba.

Bedia

Bediako ikastaroetan izena urri lehenengoaren 8tik 18ra emon daiteke Bebetekan, 16:30etik 19:30era. Ikastaroak urri bigarrenaren hasi eta maiatzaren amaierera edo bagilera arte izango dira, Zoru pelbikoa indartzea izan ezik; honek 5 saio izango ditu urri bigarrena eta abenduaren artean.

Honek dira Bediako ikastaroak: Yoga, Pilates, Koroa, Euskal dantzak, Jauziri dantza taldea, Euskera ikasteko ikastaroa, Marrasketa, Gimnasia erritmikoa, Memoria kognitiboa, Lagunarteko

digitalizazioa, Batzen-kido, Saltsa/merenge dantzak, Josten ikasten eta Zoru pelbikoa indartzen.

Dima

Diman ikastaroetan izena urri lehenengoaren 5era arte emon daiteke 94 631 57 25 telefonoan edo <https://forms.gle/arWVqTrbfy7Y52ix6> estekan. Ikastaroak urri bigarrenaren 1ean hasiko dira eta ordainketea hilero egin behar da hilaren 5a baino lehen. Pilates, Yoga, Zumba, Entrenamentu funtzionala, Hipopresiboak, Luzaketak, Eskulanak eta Mantenimenduko gimnasia ikastaroek osotuten dabe Dimako eskaintzea.

Lemoa

Ikastaro eta tailerretarako izena udal webgunean emon behar da, epe desbardinak dagoz ikastaro bakotxarako. Epean informazioa webgunean emongo da urri lehenengoan zehar. Hauxe da 2025-2026 ikasturterako udal eskaintzea: Zoru pelbikoa eta sexualitatea, Emakumeok elkarrekin hazteko espazioa, 8 eta 12 urte bitartekoentzat Xakea haurtzaroon, 6 eta 11 urte bitartekoentzat Pentsamendu sakona garatzea, 16 urtetik gorakoentzat Makilajea, Argazkigintza digitala, 16 urtetik gorakoentzat Informatika, Eskulanak, Euskara eskolak, Euskara merkatariarentzat, Pertsona migratuentzat euskara, Bizitzak josten elkartzen duten puntadak, Esperientziak kontatzearen balioa, Bizirik bizi, Elikagaien kontserbazioa, Risoterapia eta Bisuteria Masterclass.

PAILAZOAK

Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo pailazoak Arteako jaietan egongo dira

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 7an, domekan, 18:30ean, Kurkuluxetan Elkarteko Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo pailazoek Txanpon baten truke ikuskizuna eskainiko dabe umeen gozamenerako Arteako plazan.

Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo holan aurkeztzen dabe euren ikuskizuna: "Gure pailazoak etxera itzultzerakoan konturatuko dira alokairua oso altu ipini deutseela eta kale gorrian geratuko dirala. Ai ene! Eta oin

non biziko dira? Nori eskatuko deusie laguntzea? Hainbat trikimailu sortuko ditue eta hainbat lekutara joango dira euren etxea barrira eskuratzeko, baina lortuko dabe? Etorri gugaz abentura barregarri honetaz gozatzera... musika eta abestiz horniduta".

Kurkuluxetan

Kurkuluxetan alkartekoen helburua euskerea sustatzea eta bultzatzea da, umeek eta gazteek esparru desbardinetan, hizkuntza naturaltasunez erabili dagien



eta, horretarako, hezkuntzaren balioetan oinarritutako ikuskizunak egiten dabez. Alkarteak antzerki eskolak be emoten ditu ikastetxeetan.

IPUIN KONTAKETEA

80 amandre ipuin
kontaketea dakar Dorleta
Kortazarrek Dimara



Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 12an, 19:00etan, Dorleta Kortazar ipuin kontalaria egongo da Diman, 80 amandre lanagaz. Amama eta antxinako andrei omenalditxo da ipuin kontake-ta hau.

Sinopsia

80 amandre (amama) behar ei dira antxinako andrak egun-goakaz lotzeako, hori inoan be-hintzat Jorge Oteiza handiak; 80 amama besterik ez, antxinaroa orainaldiagaz lotzeako. 80 ziran;

20 izan eitekezan; 4 dira. Nik 4 amama nahikoa izan dodaz munduan nire txokoa topetako, 4 amama besterik ez, ipuin bi-hurtu eta saio honetan alkatu dodazanak.

Ametsak, desioak, lana eta tristurak mototsean kiribildu eta munduari irribarre egiten ikasi eben andren istorioak dira honeek. Esku zailduak, sabel puztuak, begirada galduak, eta batez be irribarrea begietan daukien amandreak, amamak, amonak, amaxiak, amumak... Finean, nire amandreak zure amamak be badiralako.

PAILAZOAK

Pailazoak
Zeberion
hilaren 2an

Erredakzinoa

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore pailazoak Zeberioko jaietan egongo dira, eta urri lehenen-goaren 2an, 18:00etan, Ostirala iritsi da ikuskizuna eskainiko dabe.

Sinopsia

"Gaur egun berezia da eskolan. Porrotx, Marimotots, Pupu, Lore eta bertaratutako lagunek Txapas irakasleagaz batera, bere azken laneguna igaroko dabe, alkarregaz ikasitakoa ospatuz. Basoa, jolasak, eskulanak, kan-tuak, irriak eta bihurrikeriak ez dira faltauko. Txapasegaz beti da ostirala!" dinoe pailazoen web-gunean. Eta eskolara bueltetako bezperetan, ikuskizun hau ikus-tera animetan dabez umeak eta euren gurasoak. "Jantzi sudur gorria eta zatoz gugaz Txapasen kaxa magikoek gordetzen dituen sekretuak ezetuten!".

Katxiporreta kooperatibearen lan honetan, Joxemari Agirre-txe, Mertxe Rodriguez, Izaskun Forcada, Joanes Echeveste eta Oihana Sanchez aktoreek egi-ten dabez Porrotx, Marimotots, Pupu, Lore eta Txapasen perso-najeak, hurrengo hurrengo.

KOTXEPIN

Ikasturte barriari begira,
Lemoako Kotxepin Kultur
Etxeko bazkide izateko
kanpaina martxan da

Erredakzinoa

Bazkide izateak dakarzan des-kontuak eta bentajak gozatuteko modu bi dagoz, edadearen ara-berakoak. Kotxepin lagunek, 14 urtetik gorakoek, 20 euro pagau behar dabe urtean bazkide iza-teko eta emonaldi guztietan % 30eko deskontua izango dabe. 0 eta 13 urte bitartekoek be, Ko-txepin Txiki bazkideek, % 30eko

deskontua daukie emonaldi guztietan, baina bazkidetzea egiteko urtean 10 euro baino ez dabe pagau behar.

Kotxepin Kultur Etxeak, ikas-turtean zehar, antzerki, kon-tzertu eta umeentzako ikuskizun ugari eskaintzen ditu, hiru bat hilean. 2025-2026 ikasturtekoa, urri lehenengoaren 20an hasiko da, Zuhaitz Gurrutxagaren Nor-tasun agiria bakarrikzeteagaz.



Euskara eroso ikasi eta bizi

aek euskara praktikoa

Arratiako AEK

EUSKARA-IKASTAROAK
Matrikula zabalik

- Maila guztiak, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordutegi zabalak

Ellexalde 10, Igorre
94 631 56 57 / 607 632 916 · arratia@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzak, maila egiaztatuz gero. Arratiako udal guztiek diruz lagunduta

Arratiako Herri Ikastetxeak

Gure

ikastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

AGENDEA

URRI LEHEN. 1
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA
Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Urri lehenengoaren 25era arte, Areatzako Mendi Martxan izena emoteko epea zabalik www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/areatzako-mendi-martxa-2025 helbidean.

ARTEA
Jaietako herri bazkari eta Mozorro Gaurako izen-emoteak zabalik, udaletxean, hilaren 2ra arte.

Hilaren 19ra arte emon daiteke izena udal ikastaroetan. Ikastaroak: *Zurezko talla eta pirograbazioa*, 3. *adineko gimnasia*, *Zumba*, *Pilates*, *Hipo-pilates*, *Entrenamentu Funtzionala*, *Biodantza*, *Akrobaziak* 2014 eta 2019 urteen bitartean jaiotakoentzat, *Irakurleen Txokoa*, 2-5 urte bitarteko umeen familientzako *Irakurketa Kluba* eta 6-8 urte bitarteko umeentzako *Irakurketa Kluba*.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO
Urri lehenengoaren 25era arte, bialdu daitekez argazkiak [begituru](https://forms.gle/arWVqTrbfy7Y52ix6) Udako Argazki Lehiaketarako begitu.eus helbidera.

DIMA
Hilaren 5era arte emon daiteke izena Udal ikastaroetarako 94 631 57 25 telefonoan edo <https://forms.gle/arWVqTrbfy7Y52ix6> estekan. Ikastaroak: *Pilates*, *Yoga*, *Zumba*, *Entrenamentu funtzionala*, *Hipopresiboak*, *Luzaketak*, *Eskulanak* eta *Mantenimenduko gimnasia*.

IGORRE
08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:45era. Arreteak: astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:00etatik 13:30era. Hilaren 5era arte goizez bakarrik zabalik.

LEMOA
08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik. Lemoatx Trail martxa zein lasterketetarako inskripzioa egiteko aukerea zabalik labur.eus/Lemoatxtrail helbidean.

Hilean zehar Udal ikastaroetan izena emoteko epea zabalik udal webgunean. Ikastaroak: *Zoru pelbikoa eta sexualitatea*, *Emakumeok elkarrekin hazteko espazioa*, 8 eta 12 urte bitartekoentzat *Xakea haurtzaroan*, 6 eta 11 urte bitartekoentzat *Pentsamendu sakona garatzea*, 16 urtetik gorakoentzat, *Makilajea*, *Argazkigintza digitala*, 16 urtetik gorakoentzat *Informatika*, *Eskulanak*, *Euskara eskolak*, *Euskara merkatarientzat*, *Pertsona migratuentzat euskara*, *Bizitzak josten elkartzen duten puntadak*, *Esperientziak kontatzearen balioa*, *Bizirik bizi*, *Elikagaien kontserbazioa*,

Risoterapia eta *Bisuteria Masterclass*. Hilaren 3ra arte hilaren 6an izango dan andramarietako bertso bazkarian (Onintza Enbeita eta Aner Euzkitze) parte hartzeako txartelak salgai udaletxean.

UBIDE
08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero. Hilaren 11ra arte, Ubideko Birarako izena emon daiteke www.kronoak.com webgunean.

ZEANURI
Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO
Sandoniak. 11:30ean, umeen jolasak eta puzgarriak; 13:00etan, kalejireia Etxebarria aita-semeak; 15:00etan, indaba jana guraso alkartearen eskutik.

URRI LEHEN. 2
LEMOA

12:00etan, mezea San Antolinen. Ostein, kopaua; 13:00etan, azkolarien erakustaldia. Mendieta Herri Kirol Taldea; 14:00etan, Baba Lehiaketako lapikoen aurkezpena: "Urrezko Lapikoa" + 100 euroko bonua herriko komertzioetan erabilteko; 16:30ean, erromeria Joxe Mendizabalegaz. Autobus zerbitzua egongo da San Antolinera igoteko. Ordutegia: 10:00-15:00/17:00-21:00.

ZEBERIO
Sandoniak. 13:00etan, Laura Orueren aldeko XXV. urteurreneko mezea



Bertso bazkaria Lemoan urri lehenengoaren 6an

Lemoako Andra Mari jaien harira bertso bazkaria antolatu dabe Kulturguneko plazan, 15:00etan. Euria egin ezkerro bazkaria eskolako aterpean egingo da. Bertsolariak Onintza Enbeita eta Aner Euzkitze izango dira, euren bertsoak eskainiz giro berezia sortzeako asmoz.

Bazkarian parte hartu gura dabenek txartela erosi behar dabe aldeztu aurretik. Umeentzako prezioa 10 eurokoa da, eta helduentzat 16 eurokoa. Txartelak Lemoako udaletxean dagoz salgai hilaren 3ra bitartean.

Onintza Enbeita eta Aner Euzkitze
Onintza Enbeita askotan egon da Arratian. Ez bakarrik urtean urtean egiten diran bertso saio nagusietan (Zeanuriko Bertso Saioa, San Jose-tako bertso saioa), baita bertso bazkari eta afarietan eta beste ekintza ugaritan be. Oingo hilean, Lemoako bertso bazkariak gainera, egun bi beranduago, 8an, Arteako jaietan be egongo da 13:00etan, Aitor Etxebarriazarragagaz batera.

Aner Peritz "Euzkitze" bertsolari gaztearentzat be ez da lehenengo aldia Arratian. *eRRe. Aldarri bat bertsoz* ikuskizunagaz egon zan Lemoan eta Arantzazun, oin dala pare bat urte.xxx

eta ostein barauskarria; 15:00etan, jubiladuen bazkaria, Mus, Tute eta Briska Txapelketakaz; 18:00etan, Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore pailazoen *Ostirala iritsi da* ikuskizuna.

URRI LEHEN. 4
ARTEA

Arteako Andra Mari jaiak. 18:00etan, txupinazoa. Hilaren 8ra arte. Ikusi programea 5. orrialdean.

IGORRE
09:00etan, NANA edo pasaportea izapidetzea Lasarte plazan. Aldez aurretik hitzordua eskatu behar da 94 685 25 16 telefonoan goizez deituta. Momentuan bertan eta eskudirutan ordaindu behar da.

URRI LEHEN. 5
ARTEA

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik bueltetako autobusa, autobus geralekuan.

IGORRE
Arratia Motor Taldearen XXV. urteurrena. 18:00etan, izen-emotea; 20:00etan, saltxitxa ogitartekoa (*Hot Dog*) txosnan eta 21:00etan, karaokea txosnan.

URRI LEHEN. 6
AREATZA

Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñaren Gorbeiara igokerea. 09:00etan, urtekerea frontoitik; 14:30ean, hildako bazkideei omenaldia Pagomakurren; 15:00etan, sagardotegi erako bazkaria Pagomakurren. Euria bada udaletxeko arkupeetan; 20:00etan, Aizul, Kortaturen tributo taldearen kontzertua Gudarien Plazan.

DIMA
15:00etan, Dimako III. Igoerea, autoen krono-igoerea.

IGORRE
Arratia Motor Taldearen XXV. urteurrena. 10:00etan, izen-emotea txosnan; 12:00etan, bira turistikoa parkinetik urtenda; 15:00etan, bazkaria eskolan; 17:00etan, Narcis Rocaren Stunt Show-a txosnan; 18:00etan, pernil zozketea txosnan; 18:30ean, Gotx elektrotxarangea txosnan; 21:30ean, parrilladea txosnan.

LEMOA
Andra Mari jaiak. 13:00etan, poteo musikatua Arratiako Musika Eskolako trikitilariakaz Batzokitik; 15:00etan, bertso-bazkaria Kulturguneko plazan (euria bada, eskolako aterpean). Bertsolariak: Onintza Enbeita eta Aner Euzkitze; 17:30ean, Andra Mari Futbol Txapelketea Arlonagusian Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatuta; 19:30ean, poteo musikatua Xerokiak taldeagaz Arlonagusia futbol zelaitik.

ZEANURI
Zeanuriko Ermiten XXXVI. Mendi Martxea. 07:00retan, izen-emotea plazan; 07:30ean, urtekerea plazatik. Hiru ibilbide: luzea, 35 km; ertaina 25 km eta laburra 13 km.

URRI LEHEN. 8
AREATZA

Hilaren 19ra arte emon daiteke izena udaletxean goizeko 08:00retatik 15:00etara, astelehenetan 15:30etik 17:30era be bai; edo labur.eus/Areatzaikastaroak estekan, udal ikastaroetarako. Ikastaroak: *Eskulanak*, *Crossfit*, *Zumba*, *Spinning*, *Pilates*, *Mantenimendu gimnasia* 62 urtetik gorakoentzat, *Puntua eta kakorratza*, *Euskal dantzak*, *Ehoziri lanak*, *Joskintza*, *Luzaketak*, *Yoga* eta 12-16 urte bitartekoentzako *Dantza modernoa*.

BEDIA
17:30etik 19:00etara, 2025-2026 ikasturtea hasten da Ludotekan; informazio gunea zabaltzen da, inskripzioak Bebetekan; Bedian erroldatutako 0 eta 17 urte bitarteko ume eta gazteentzako urtebetetzeak ospatzeko lokalaren zerbitzua zabaltzen da, erreserbak Bebetekan.

Hilaren 18ra arte, Bediako jubiladu eta pensionistentzako Udalak hilaren 25erako antolatutako Lizarrara txangorako izen-emotea Bebetekan eta urri bigarrenaren 25ean, Errioxako Baigorri bodegara bisitarako izen-emotea Bebetekan.

Hilaren 18ra arte, Udalak eratutako ikastaroetan izen-emotea Bebetekan. Ikastaroak: *Yoga*, *Pilates*, *Koroa*, *Euskal dantzak*, *Jauziri dantza taldea*, *Euskera ikasteko ikastaroa*, *Marrazketa*, *Gimnasia erritmikoa*, *Memoria kognitiboa*, *Lagunarteko digitalizazioa*, *Batzen-kido*, *Saltsa/merenge dantzak*, *Josten ikasten* eta *Zoru pelbikoa indartzen*.

Hilaren 19ra arte, 12 urtetik gorakoentzat Gaztegunean apuntetako izen-emotea Bebetekan; izena emoteko epea zabaltzen da difusino taldean parte hartzeako eta zemendiaren 25erako eta Gabonetarako herrirako apaingarriak sortzeako tailerretarako izen-emotea Bebetekan.

LEMOA
Andra Mari jaiak. 12:00etan, meza nagusia Andra Mari eleizan; meza

begitu 455
2025eko urri lehenengoaren 1a

ostean, Durundi Barri jantza taldearen emonaldia; 13:30ean, Triki-Piu-Pand trikitilariak herritik; 19:00etan, Barsanti konpainiaren *LJ75* antzezlanak Kulturguneko plazan.

URRI LEHEN. 9
LEMOA

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

URRI LEHEN. 12
DIMA

19:00etan, Dorleta Kortazarren ipuin kontaketea, *80 amandre*, Piedadeko ermitan.

URRI LEHEN. 13
AREATZA

Gorbeialdek antolatuta, Gorbeia Altzorrak. 09:00etan, mendi ibilbidea; 11:00etatik 15:00etara, Turismo informazio gunea, Gorbeia ekoizle eta artisauen azokea, Gastro-gunea eta umeentzako sormen txokoa; 11:30ean, Areatzako uribildua ezagutzen; 12:30ean eta 13:30ean, Urigoitiko txorizoen dastaketea; 13:00etan eta 14:00etan, txakolin dastaketea; 13:00etatik 15:00etara, Jazz Collective Quartet, musika zuzenean; 19:00etan, Korrontziren *Izan bagara* ikuskizuna, jantza, herri kirola eta musika plazan; 20:30ean, amaiera.

Gorbeia Parke Naturalak antolatutako ibilbide gidatua: Gorbeia interpretazio paisajistiko eta historikoa Juan Manuel Perez de Anaren eskutik. Izena emon 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.org helbidean.

Errukiñeko jaiak. 12:00etan, mezea; ostein barauskarria.

DIMA
Ermiten ibilbidea plazatik urtenda. Ibilbide erdia egingo da aurtin eta beste erdia 2026an. Ibilbidea: Piedadea, San Migel Txiki, San Roke (Olazabal), San Inazio (Arostegieta), Santa Maria Magdalena (Lamindao), San Blas, San Fraisku (Indusi) eta Ugarana.

URRI LEHEN. 14
LEMOA

Ausarten Kopa Bizkaiko txirrindularitza eskoletako errepideko lasterketea. 09:00etan, izen-emoteak; 10:00etan, Haurrak; 10:30ean, Benjaminak; 11:00etan, Alebinak; 11:40ean, Infantilak neskak; 12:15ean, Infantilak mutilak 1. urtea; 13:00etan, Infantilak mutilak 2. urtea.

UBIDE
09:00etan, Ubideko Bira. Ibilbide luzea 20 km; ibilbide laburra 12 km. Izena aldeztu aurretik edo egunean bertan emon daiteke.

URRI LEHEN. 15
BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 19ra arte, urri bigarrenaren 11n izango dan 12 eta 26 urte bitarteko Gazteentzako Olaberria Kartingera urtekerarako izen-emotea Bebetekan.

IGORRE
11:00etatik 13:00etara, telefono adimendua (smartphone) erabiltzen hasi eta ikasi Kultur Etxean. Aldez aurretik izena emon 94 426 88 44 telefonoan edo adiskidetza.digitala@bizkaia.eus helbidean.

KOMIKIA

Kailo Ren

eskolara itzulera

IRAGARKI LABURRAK

DANERIK BULEGOA SALDU EDO ALOKATZEN DA
 Arrigorriagako erdigunean 43 metro karratuko lokala. Guztiz instalatuta eta altzariz horniduta. Interesdunek deitu 665 709 651 telefonora.

LOGELA BILA
 Lan eta ikasi modalidadean dabilen ikasle bat logela bila dabil Igorre edo inguruetan. Gixienez urte birako beharko leuke logela. Interesdunek deitu 613 075 822 telefonora.

SALTZEAN DODAZ
 Lowepro argazkilaritza motxila gorria, neurriak: 26x34x11, prezioa: 35 euro. Umeentzako tipi ohea. 90x190 cm neurrikoa, 90 cm-ko zabalerako koltxoirako. Somierra zoru gainean. Kolorea: egurra eta zuria eta prezioa: 90 euro. Interesdunek deitu 661 273 192 telefonora.

GELA BEHAR DOT ALOKAIRUAN
 Pisu konpartidu baten, persona bakar batentzako gela bat behar dot alokairuan. Telefonoa: 642 912 390.

MAHAIA OPARITZEN DOT
 Eskola adineko umeentzako mahai aproposa oparitzen dot. Telefonoa 630

363 971.

DORDOKEA TOPAU DOGU
 Dordoka bat topau dogu Igorren, San Juan auzoan. Zurea bada, 611 617 137 zenbakira deitu.

KIMIKAKO KLASEAK HARTU GURA DODAZ
 Bigarren Batxilergoko kimika klaseak euskeraz jasoteko nonoren bila nabil abuztuaren hasieratik, ordutegi malguagaz, gero, klaseak urte osoan zehar izateko asmoz zapatuetan ordu biz. Deitu: 638 889 851.

SALTZEAN DOT
 Ezkaraiko aparadore bat, 1,50eko mahai eta aulkiak, haretx egurrezkoak. Oso egoera onean. Banan-banan erosi ahal dira. Interesdunek deitu 657 777 542 telefonora.

IRAKASLE BILA
 Eskola partikularretarako piano irakasle bila nabil. Telefonoa: 608 062 592.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Areatzako Udalak emondako *Dolu bat eta dolu bi* liburuaren ale bana.

Karmelo Uriarte (Zornotza)
 Karmen Petralanda (Areatza)



2 Areatza Musik and Brewing Musika eta Kultura Elkartek ateratako materiala.

Pedro Mari Legarreta (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 23 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %

PEDRO AUTOZERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROGER

SABINO ARANA 38 IGORRE

Tlf. 94 631 92 00

Ipini zure iragarkia Begitun

649 979 115

inigoirua@begitu.eus

BIXER TABERNA

Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia

94-673-70-87
609-79-40-54

begitu

eus



Gorbeia

ALT XORRAK



Irailak **13 AREATZA** (Bizkaia)

9:00

Mendi-ibilaldia: basoko altxorrak
Gorbeia atarian
Plaza mugatuak
• Prezioa: 5 €

11:30

Areatzako hiribildua
ezagutzen
Plaza mugatuak
• Prezioa: 5 €

12:30ean eta 13:30ean

Dastaketa
URIGOITIKO TXORIZOAK
Plaza mugatuak
• Prezioa: 3 €

13:00etan eta 14:00etan

Dastaketa
TXAKOLINA
Plaza mugatuak
• Prezioa: 3 €

13:00-15:00

Jazz Collective Quartet
(musica zuzenean)

19:00

KORRONTZI: "IZAN
BAGARA" ikuskizuna,
dantza, herri kirola
eta folk musika

20:30

Amaiera

11:00-15:00

(Ordutegi jarraitua)

Turismo informazio gunea

Gorbeia Ekoizle eta Artisauen AZOKA

GASTRO-GUNEA

Gorbeia Altxorren pintxoak eta
potea dastatzeko lekua

Haurrentzako sormen txokoa

ZOKETA
Parte hartu eta gozatu!
GURE ALT XORRAK
Ordua: 15:00

Bizkaia
bizkaibus

Bizkaibus Bizkaia mugitzen. Zatoz Areatzara autobusez. A-3917

Informazio gehiago eta erreserbak: gorbeiaeuskaadi.com

Antolatzaileak



Laguntzailea



Babesleak



EUSKADI
BASQUE COUNTRY
#Basqueexperience

Euskadi, azalera, bien común

